

## **NEGOZIO IDEIAREN AZALPEN LABURRA**

Gure negozio ideia, beraz denda eta sare bat izango zen, 3. sektoreko txikizkako eta handizkako merkataritza enpresa, Km-0-ko edo eskualde murriztu bateko produktuak bakarrik salduko zituena. Ez genuke bakarrik janaria, pentsatu ahal den moduan, salduko. Gure ideiarekin barnean tokiko eta zero kilometroko mota askotako elikagaiak

Idea hau aukeratzeko hainbat arrazoi izan ditugu:

Km-0-ko produktuen arrakasta ikusita, hala nola Kaiku esnekiak Euskadin, gure ideia arrakastatsua izango delakoan gaude. Izan ere, produktu horiek duten irudi ona eta zentzu batean baita ere arrakasta lortuko genituzke horiek saltzen.

Beste arrazoi bat Km-0-ko edota eskualdeko produktuek asebetetzen duten behar soziala edo arduratzen diren erronka soziala izan da: aldaketa klimatikoa eta kutsadura. Gure ideiarekin ez lirateke ia kutsatuko, beraz, egoera horren kontrako borrokan lagunduko genukeen.

Hortaz aparte, tokiko merkataritza eta negozio alde jotatuko dugu ideia honekin; haien produktuak kontsumitzeko leku finko bat sortuko genukeelako, erraztasunak emango genizkielako.

Azkenik, hiru arrazoi horiek gure ideiarekin arrakasta ia guztiz ziurtatzen dutela uste dugu, gure eguneroko bizitzetan gure inguruko pertsonen ideia honetan proposatzen den kontsumo arduratsuen alde egingo luketelako.

Gure negozio ideia Gasteizen denda bat irekitzearekin eta handizkako merkataritzarako plataforma bat egitearekin batera hasiko zen, denda horretan eskualdeko elikagaiak, tokikoak (beti ere 100 kilometroko erradioan badago), eta noski zero kilometrotakoak salduko litzakegu. Epe erdira finkatutako helburua Euskadin hainbat denda irekitzea izango zen, eta epe luzekoa ahalik eta denda gehien munduan zehar sortzea. Probintzia bakoitzeko denda bat sortuko genuke, hiru denda horiek bere eskualdeko produktuak salduko litzate, beraz, dende ez lukete produktu berdinak izango, norbera bere eskualdeko produktuen kontsumoa bultzatuz.

## **IDEIA ZAPARRADA**

26 ideia izan genituen guztira, bost hoberenak hauek izanez:

- Hegazkin bat zein edozein apurketa gertatzen bazaio hegan egiterakoan uretan ibiltzeko gai dela.
- Zapatillentzako garbigailua
- Dron suhiltzaileak
- Enpresa elektrikoa, energia iturri ekologikoak
- Zero kilometroko produktuen dendak, epe luzerako helburua: mundu osoan filialak izatea; multinazionala bilakatzea.

## **BALORAZIOA**

Geroago ideia horiek baloratu genituen talde guztia, eta bi hoberenak zero kilometroko denda eta zirela erabaki genuen; biak 20 puntu posibletik 15,5 lortuz. Elkarrizketa bi ideietara laburtuz, beste balorazio garatuago bat egin genuen, eta zero kilometroko dendaren ideia garatzea erabaki genuen, beste ideia baino gehiago atera eta gero (37 eta 34).